

1. Capituloa.

Cantu au dena misterioa da, eta
explicatzen du Cristoñ paregabeco
amorioa bere Esposa Elizai, eta ber-
riz unena bere Esposo Jesucristoi.

1. Man diezatela musu berac
bere agoco musuaiquin: ceren ardoa
baño obeac dire zure bularrac.

2. Unquenduic oberenac becen urrin
gochotsuac. Olio ichuria da zure
icena: orren gatic donxellec maite
zaiturte.

3. Zuregana nazaru: zure ondotic
laichter 'inen dugu zure unguen-
duen usañera. Sartu ninduen erre-
quec bere gambaran: borcario ta atse-
quin artuco dugu zure baitan, zure
ardoa baño obeagoac diren bularrez
oroituz: zucenec maite zaiturte.

4. Beltra naiz, baño^{an} ederra, Terusa-
lengo alabac, Cedarren tiendac be-
zala, Salomonen larruac bezala.

5. E'nazaruela iduqui beltzarantrat,
ceren iruzquiac galdu zatan nere
colorea: nere amaïn humeac goratu
ciren nere contra, paratu nindu-
ten masti zaintrale: nere mastia
e' nuen zaindu.

6. Eracuts datazu zuc, nere ari-
mac maite zaituena, non barcatze'
'izun, non siesta 'ite' 'izun egüer-
dian, ezteraten nic pausu alferric 'in

zure lagunen ardi multzuen qui-
beletic.

7. Ez balin badäquizu, o'mazte-
quien artean soil ederra, atra-
zaite, eta zoaci ardi multzuen
errestoan quibeletic, eta bazca citzu
cere antchumeac artzañen etcho-
len ondoan.

8. Nere abreai Pharaonen orquetan,
comparatu zaitut, nere aïchquidea.

9. Ederrac dire zure macelac tor-
tolainac bezala: zure lepoa per-
larco gargantillac bezala.

10. Urre cateac 'inen tugu zuretacoc
cilarrezco ar ttarrez pintarraca-
tuac.

11. Zagolaic erreque bere pausa lecu-
an, nere nardoac eman zuen bere
urrina.

12. Mirrarco fal ttar bat da nere
maitea neretaco, nere bularren
artean bicico da.

13. Cipro ocoa da nere maitea
neretaco, Ingadico mastietan.

14. O cein ederra zaren zu, nere
aïchquidea!; o cein ederra zaren
zu! cere uso beguiequin.

15. O cein ederra zaren zu, nere
maitea, ta graciosa! Gure goatrea
loreztatua da.

16. Gure etchetaco gapirioac ce-
drozcoac, moldurac ciprezcoac.

II Cap.

Eposo ta Eposain privilegioac: amorio divinoain graduic gorena: Yincain presentzia, eta Elizain pertrequitraleac.

1. Ni campoco lorea, ta valletaco lirioa.
2. Nola lirioa arantzén artean, quisa berean nere aïchquidea alaben artean.
3. Nola sagar ondoa oyanetaco arbolén artean, quisa berean nere maitea semen artean. Nic deseatu nuen aren itzalean yarri nitzen; eta aren fruitua ertia nere cinzurrai.
4. Sartu ninduen ardoain gambarran, manatu zuen nere baitan caridadea.
5. Yduqui narazu lorez, ingura narazu sagarrez: cergatic flacatzera noaye amorioz.
6. Aren ezquerra nere buruain azpian, eta aren escuñac besarcatuco nau.
7. Otoizten zairtet, Jerusalemgo alabac, campoetaco basauntzez eta orinez, ertezazuen yeiqui, ertare iratzarraci maitea, berac nai izaten duen artaño.
8. Nere maiteain voza, beguira non elduden mendietan barna yaucica, mendicheac gurutzatur.

9. Basauntzain eta orin garteain parecoa da nere maitea. Beguira nola dagon bera gure paretaïn quibelean, leyoetaic beaca, celosietaic celatan.

10. Una non nere maiteac erten datan: Goiti zaite, mugui zaite, nere aïchquidea, nere usoa, nere ederra, ta zato.

11. Ceren pasatu cen negua, gran cen uria, eta erretiratu cen.

12. Loreac aguertu ciren gure lurrean, podaco sasoiña 'torri' da: tortolain voza aitu da gure lurrean.

13. Pico ondoac aguertu 'tu bere picoac: mastiec, ernatzean, eman dute beren urrina. Goiti zaite, nere aïchquidea, nere ederra, ta zato.

14. Nere usoa, peña zuloetan, pareta idor tartetan, eracuts datazu zure aurpeguia, asots 'in derala zure vozac nere begarrietan: ceren zure voza ertia da, eta zure aurpeguia ederra.

15. Yta darquigutzue mastiac chauntzen 'tuzten acheri ttarrac: bada gure mastia yadeneco ernatua da.

16. Nere maitea neretaco, eta ni arendaco, lirioen artean barcatzen duena.

17. Iguna apaldu, ta itzalach casatu artaño: Ytrul zaite: izan zaite, nere maitea, basauntzei, eta Bether-

co mendi ganeço orin garzei
iduria.

III. Cap.

Arima baten ciudadoa Esporain
bilatzeco, eta aren'in alac arpatzea
gatic. Eta nola, arpatu ondoan,
bear duen bere biotzean contservatu.

1. Nere goatzean gauaz bilatu nuen
nere arimac maite duena: bilatu
nuen, eta e' nuen arpatu.

2. Yeiquico nair, eta ibilico nair
ciudadean inguruca: carriquetan
barna ta plaretan barna bilatuco
'ut nere arimac maite duena:
bilatu nuen, eta e' nuen arpatu.

3. Arpatu ninduten ciudadea zain-
tze' 'uten centinelec: 'Cusi cinuten
venturaz nere arimac maite duena?

4. Etaic aitzintcheago pasatu nitze
laic, arpatu nuen nere arimac mai-
te duena: lotu nitrayon; eta eztut
utzico nere amaïn etchean, eta en-
gendratu ninduenain gambaran sar-
tu artañocoan.

5. Otoizten zairtet, Terusalengo ala-
bac, campoetaco basauntzez eta ori-
nez, erterazuen iratzarraci, ertare
oroitaci maitea, berac nai izaten
duen artaño.

6. ; Nor da larrean barna igaten
den au, mirrain eta intsentzuain
eta perfumeroain errauts gucien
urrinen eque listoña bezala?

7. Una non Salomonen goatzea
inguratze' 'uten iruetan oquei va-
lientec Ysraelen diren arcarrenetaic:

8. Denec baitituzte expatac, eta
soil trebeac guerraraco: bacotchac
bere expata ichterrain ganean gau-
beldurrez.

9. Angaricac 'in cituen beretaco
Salomon erregueac Libanoco zurer:

10. Iquen pilareac 'in cituen cilarrez,
quibelaldeac urrez, igan lecuá pur-
puraz: erdicoa estali zuen Terusa-
lengo alaben ganaco amorioz.

11. Atra zairte, eta 'cus 'azue, Siongo
alabac, Salomon erreguea, bere amac
bere ercontreco egunean, eta bere
biotrain bozcarioco egunean, coro-
natu zuen coronaiquin.

IV. Cap.

Esporoac declaratzean Esporain eder-
tasuna, aitortzen du ari dauquion
amorio bicia. 'Zaitzen du Esporac,
duen on gucia Esporain generosta-
suetic eldu zayola.

1. ; Cein ederra zaren nere aichqui-
dea, cein ederra zaren! Zure uso
beguiac, barnean gordeic dagona
gabetanic. Zure buruco ileac, Galaad-
go menditic igan ciren auntz sail-
lac bezala.

2. Zure ortzac, garbitreco toquitic
igan ciren ardi mortu saillac
bezala, denac hume bibiro dunac,

eta ardiputic batre equen artean gabetanic.

3. Granarzo sangrichatarra bezalacoac zure erpañac; eta zure mintzai-mingañain arzpian; eta zure vertidoen ra ertia. Granada, zatia bezalacoac, usaña, intsentruain usaña bezaguisa berecoac dire zure macelac, bar-lacoa.

nean gordeic dagona gabetanic.

4. Zure lepoa Daviden dorrea bezalacoa, cein baluartequin 'ina baita: mila escudo badaude andic cintrilica, dena valienter armatua.

5. Zure bi bularrac, bi basauntz cume bibiro bezalacoac, lirioen artean barcatzen direnac,

6. Alic eta eguna apaldu, ta itzalac casatu artaño. Gaiñ naiz mirra den mendira, eta intsentrua den mendichara.

7. Dena ederra zara, nere aichquidea, eta tatchaie erta zure baitan.

8. Zato Libanotic, nere Esposa, zato Libanotic, zato: coronatua izain zara Amanaco galdurrutic, Sanirgo ta Hermongo birzarretic, leonen leotaie, leopardoen mendietaie.

9. Llagatu cinuen nere biotza, nere arreba Esposa, llagatu cinuen nere biotza zure beguietaie batequin, eta zure lepoco trentza batequin.

10. ;Cein ederrac diren zure bularrac, nere arreba Esposa! ardoa baño ederragoac dire zure bularrac, eta zure perfumen usaña urrin on

gucien gañetic.

11. Eztiorracea, badariona, zure erpañac, o' Esposa: ertia ta esnea zure

12. Baratze etsia zara, nere arreba Esposa, baratze etsia, iturri quiltratua.

13. Zure aldachac dire granadarco cerracura sagarren fruituequin. Ciproac nardoaiquin,

14. Nardoa ta safrana, cana urrin ontsua, eta cinamomo Libanoco arbola guciequin, mirra ta aloe lembicico perfume guciequin.

15. Baratzetaco iturria: Libanotic bortizqui yausten diren ur bicien putrua.

16. Gora zaite, Yparra, ta zato, Egoa, aiza zarue nere baratzea, eta curri deratela aren ganic urrin onec.

V Cap.

Esposac convidatzen du Esposa bere baratzetara. Celebratzen da an convitea. Esposain cualidadeac.

1. Betor nere maitea bere baratzerara, eta yan dezala bere sagar ondoen fruitua. Torri naiz nere baratzerara, nere arreba Esposa, ebaqui 'ut nere mirra nere urrin onequin: yan dut orracea

nere ertziaquin, edan dut nere ardoa
nere esneaquin: yan zazue aichqui
deac, eta edan zazue, zora zairte,
soil maitatuac.

2. Ni lo nago, ta nere biotra
iratzarria dago: nere maiteaïn
voza atea yotzean: Idequi datazu,
nere arreba, nere aichquidea, nere
tatchaïc gabecoa: bada nere bu
rua intzer betea dago, eta nere
ile arroac gauazco tanter.

3. Erauntri nuen nere soñecoa,
;nola yauntrico 'ut? garbitu ni
tuen nere zangoac, ;nola ciquin
duco 'tut?

4. Nere maiteac sartu zuen
bere escua cirritotic, eta aren
uquiaz icaratu ciren nere erra
ñac.

5. Yeiqui nitzen nere maiteai
edequitzera: nere escuec ichuri
zuten mirra, eta nere beatzac
mirra arras probatuaz beteac.

6. Idequi nuen nere maiteai
nere ateaïn crichqueta: banan ura
andic aldatua cen, eta pasatua
aitzina. Nere arima urtu cen ura
mintratu cen becen laichter: bilatu
nuen, eta e' nuen arpatu: deitu
nuen, eta etzatan erresponditu.

7. Arpatu ninduten ciudadea
errondatzere' uten guardeci: colpatu
ninduten ta llagatu: ereman

zataten nere mantoa muralletaco
guardec.

8. Otoirten zaiztet, Terusalengo
alabac, baldin arpatzen baizue
nere maitea, avisa derazuen fla
quiac artzen nauela amorior.

9. ; Cein da zure maitea maiteac
baño queyago o' marztequitan
zaren ederrena? ; cein da zure
maitea maiteac baño queyago,
ala otoirtu quintutrunecotz?

10. Nere maitea churi gorria
da, milen artean autatua.

11. Aren burua urrea soil ona:
aren buruco ileac palma al
dachcac bezala, belea becen
beltrac.

12. Aren beguiac usoac erreca
barterretan bezala, iduri esnez
garbituac, eta bicitasun aun
dico uren ondoan yarriac.

13. Aren macelac, perfumeroac
landatuicaco urrin onerco alorrac
bezala. Aren erpañac, mirraïc
oberena ichurtze' uten lirioac.

14. Aren urrezco escu torneatuac,
jacintoz beteac. Aren marfilezco
sabela, zafiroz adornatua.

15. Aren quidallac marmolerco
pilareac, urrezco cimenduen
gañean 'inac. Bere ite quicia Liba
noïna, cedroac bezala autatua.

16. Aren cinzurra soil ertia, eta

bera dena deseagarria: olacoa da
nere maitea, eta ura bera da nere
aichquidea, Terusalengo alabac.

17. ; Nora gran da zure maitea, o'
'marztequien artean ederrena? ; no-
rat aldatu da zure maitea, eta
bilatuco dugu zurequin?

VI Cap.

Laudorio berriac Espoioac'iten 'tuenac
Espoiaindaco. Au ederra da, eta dem-
bora berean icaragarria.

1. Nere maitea yautsi cen bere
jardinera urrin onen alorrera, ba-
ratzetan bazcatzera, eta lirio artzera.

2. Ni nere maitea indaco, eta nere
maitea neretaco, lirioen artean
bazcatzen duena.

3. Ederra zara, nere aichquidea,
ertzia ta graciak betea Terusalen
bezala: icaragarria escuadronerco
ejertito ordenatu bat bezala.

4. Aparta citru nere ganik zure
beguiac: ceren ec airaci ninduten.
Zure buruco ileac, Galaadtic aguer-
tu ciren auntz saillac bezala.

5. Zure ortzac, garbitzeco toquitic
igan cen ardi sailla bezala, denac
hume bibiroequin, eta ardiputic ez
baita equen artean.

6. Granada azala bezala, quira
berean zure macelac, zure baitan
gordeic dagona gabetan.

7. Yruetan oquei dire errequinac,

eta lauetan oquei andre ordeac, eta
doncellac ecin contatuala.

8. Bat bacarra da nere usoa,
nere perfecta, bacarra da bere
amain ganik, engendratu zuenaz
autatua. Cui zuten alabec, eta
predicatu zuten soil zorionezcoa: er-
requinec eta andre ordéc, eta lau-
datu zuten.

9. ; Norda argui astea bezala da
bilan au, ederra ilarguia bezala,
autatua iruzquia bezala, icara-
garria escuadronerco ejertito orde-
natu bat bezala?

10. Yautsi nitzen quiltzaurren
baratzera, valletaco sagarren
icustera, eta mastia ernatu ote
cen miratzera, eta aguertu ote
ciren chocorrac.

11. E'nuen yaquin: nere arimac
nari ninduen Aminadaben orguen
gatic.

12. Itzul zaitte, itzul zaitte Sula-
mita: itzul zaitte, itzul zaitte,
beguira zaitzagun.

VII Cap.

Espora laudatua da bere etsayetaic
contsequitu bear 'tuen victoriez, bere
yoritanunaz, eta ondocoei 'main
daben educacioaz.

1. ; Cer icusico 'izu Sulamitain
baitan baicic escuadronerco co-
ruac? ; Cein ederrac diren zure pau-

suac oiñetacoetan, printzipe alaba!
Zure ichterren yunturac ofisialcain
escutic atra diren erartunac bezala.

2. Zure chilcoa, beinere edaria
escas ertuen taza torneatua da.

Zure sabela, liriorco esiz etsia
den ogui pila bezalacoa.

3. Zure bi bularrac, bi basauntz
cume bibiro bezalacoac.

4. Zure lepoa, marfilezco dorrea
bezalacoa. Zure beguiac, yende
bilguraco portalean dauden
Heseboneen arrantza lecuac beza-
lacoac. Zure sudurra, Damascoco al-
derdira beguira dagon Libanoco
dorrea bezalacoa.

5. Zure burua, Carmelo bezala-
coa; eta zure buruco ileac, erregue
purpura tinetan lotua.

6. Cein ederra zaren eta cein
graciosa, o' soil maitatua, atsegi-
netan!

7. Zure talla palmaï iduria da,
eta zure bularrac ocoei.

8. Erran nuen: Ygain naiz pal-
mara, eta artuco 'tut aren frui-
tuac; eta izain dire zure bularrac
mastico ocoac bezala, eta zure
agoco usaña sagarrena bezala.

9. Zure cintzurra ardoïc oberena
bezalacoa, nere maiteaz edangarria,
eta aren erpañez eta ortzez es-
naurratzeco.

10. Ni nere maiteaï ta aren vuelta
nere aldera.

11. Zato, nere maitea, atra gaitzin
campora, bici gaitzin barter etche-
tan.

12. Yeiqui gaitzin goizetic mastie-
tara, 'cus zagon loratu ote den
mastia, 'maten ote 'uten lorec
fruitua, lorean ote dauden cho-
corrac: an emain darquitzut nere
bularrac.

13. Mandragorec eman dute ur-
rina. Gure atarietan fruitu gu-
ciac: berriac eta zagarrac, nere
maitea, altchatu 'tut zuretaco.

VIII Cap.

Esposac deseatzan du soil elcarren-
ganatua egotea bere Esposoaïquin,
eta aitortzen du imposible dela
erretzen aï duen amorioaïn gar-
ra itzaltzea.

1. Norc emain dat zu izatea,
nere anaya, nere amain bularrac
edanez, campoan arpatzea, eta
muru 'matea, eta ez niorc que-
yago despreciatzea?

2. Lotuco natzaitzu, eta ere-
main zaitut nere amain etche-
ra: an eracutico datazu, eta
'main datzut ardo preparatutic
edaria, eta nere granaden muz-
tioa.

3. Aren ezquerria nere buruaïn

azpian, eta aren escuñac besar-
catuco nau.

4. Otoizten zaiztet, Jerusalemgo
alabac, exterazuen iratzarraci, exta-
re oroitaci nere maitea, berac
nai duen artaño.

5. Nor da larretic igatin den
au, atsequinez betea, bere mai-
teain gañean pausatua? Sagar
baten azpian iratzarraci cintuten:
an izan cen zure ama galdua:
an izan cen bortchatua zure en-
gendratzalea.

6. Para nazazu sello quisa
zure biotzain gañean, sello
quisa zure besoain gañean: ceren
eriotzea becen fuertea da amo-
rioa, infernua becen gogorra
gogoa: aren lamparac surco ta
garrezco lamparac dire.

7. Or aunitzec ecin itzali izan
zuten caridadea, hualdec ere
ertute urperatuco: 'maten balin
balu quizonac bere etheco izate
gucia amorioain gatic, deus ez
bat bezala despreciatuco lague.

8. Gure arreba ttarra da,
eta extu bularric. ; Cer 'inen
diogu gure arrebañ mintzatu
bear rayon egunean?

9. Muralla bat balin bada,
'in 'tragun aren gañean cilar-
rezco dorreac: atea balin bada,

errefortza 'ragun cedrozco olez.

10. Ni naiz muralla: eta nere
bularrac dorre bezala, baquea
contseguitzen duena bezala aren
aitzinean 'ina izan naizenez
queroztic.

11. Masti bat izan zuen pres-
tuac puebloec duten artan:
entregatu zuen guardai, quizo-
nac ecartzen 'tu aren fruituain
aldera mila cilar moneda.

12. Nere mastia nere aitzinean
dago. Zure mila prestuainac,
eta berreun, aren fruituac guar-
datzen 'tuzten equendaco.

13. O zu baratzetan bici zarena,
aichquidéc aître 'ute: adiaz da-
taru zure vora.

14. Ygues 'izu nere maitea, eta
izan zaite urrin onen mendi
gañetaco basauntz eta basauntz
cumeac iduria.



Par Ocheuioque
(Muesit)

16